


Euskal AEko industria-jarduerak % 0,9 egin du behera 2023ko otsailean

Aurreko hilarekin –2023ko urtarrila– alderatuta, industria produkzioaren indizeak % 1,3 egin du gora

Euskal AEko industria produkzioa 2023ko otsailean aurreko urteko hil berekoa baino % 0,9 txikiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Otsailean, aurreko hilarekin –2023ko urtarrila– erkatuta, berriz, Euskal AEko industria-jarduerak % 1,3 egin du gora, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helmuga ekonomikoen arabera, *Kontsumo-ondasunek* urte arteko portaera positiboa izan dute 2023ko otsailean; % 1,9ko igoera izan dute sektorean, oro har. Igoera hori, nagusiki, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* produkzioan izan den % 2,7ko igoeraren ondorio izan da; haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko aparatuen fabrikazioa. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek* % 1,7 egin dute gora produkzioan. Haietan, honako jarduera hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak, eta arropen jantzigintza.

Produkzioak gora egin du, era berean, *Tarteko Ondasunetan* (% 0,4), urte arteko terminoetan. Sektore horretan, honako jarduera hauek sartzen dira, besteak beste:

metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Produkzioaren indizeak behera egin du % 0,3, aurreko urteko otsailarekin alderatuta, *Ekipo-ondasunetan*. Haien artean honako hauek daude: motordun ibilgailuen fabrikazioa; lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza, eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza.

Energiak, azkenik, % 10,0 egin du behera, urte arteko terminoetan, 2023ko otsailean. Sektore horretan, energia elektrikoaren produkzioa eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

insertatabla_19376

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2023ko otsailean urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 5,3), *Makinak eta ekipoa* (% 4,1) eta *Kautxua eta plastikoak* (% 3,0). Bestalde, produkzioaren jaitsiera nabarmenena izan duten sektoreak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 8,4 behera), *Elikagaigintza, edariak eta tabakoa* (% 2,5 behera) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 1,4ko jaitsiera izan da produkzioan).

insertatabla_19375

Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera, 2023ko otsailean, negatiboa izan da Gipuzkoan eta Bizkaian; % 3,8ko eta % 0,9ko urte arteko jaitsierak izan dituzte, hurrenez hurren. Araban, berriz, industria-produkzioak % 4,1 egin du gora urte arteko terminoetan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 93,16**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62